

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ GIMNASIA ERRITMIKOA

Ate irekiak, gaur
Ikasturtea hastera dioa, Hernaniko Gimnasia Erritmiko taldea; eta martxan jartzeko, ate irekien saioa egingo dute gaur, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara, kiroldegian. Bestalde, bihar dute apuntatzeko azkeneko eguna, 2012 urtean edo lehenago jaiotakoek (2013koek ezin dute apuntatu; gaizki jakinarazi zuten hasiera batean), edota gimnasia akrobatikoa egin nahi dutenek. Internet bidez egin daiteke, www.hernanigimnasia.com webgunean. ■

■ EUSKAL JAIK

Pailazoak eta 'Margolaria', Euskal Jaiei kolorea jartzen hasteko

Bi emanaldi izango dira gaur, asteburuko Euskal Jaien prelude: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen saioa, 18:00etan Atsegindegian; eta Mikel Urdangarinen kontzertua, 22:30etan Biterin.

EUSKAL Jaiek hartuko dute Hernani beste behin, asteburu honetan, egitarau bete-betearekin. Eta horren prelude, bi emanaldik jarriko diete umorea eta kolorea, gaur bertan.

Aurrena, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldia izango da, 18:00etan hasita Atsegindegian. Urtero antolatzen du, 'Hernani' Musika Eskolako akordeoi taldeak, eta *Borobil* ikuskizunarekin datoz gaurkoan, hiru pailazoak: botere harremanen inguruan ariko dira, betaurreko moreak jantzita, Uxue Alberdik idatzitako lau ipuinetan oinarritutako saioan. Emanaldirako sarreak salgai daude, Hernaniko bi dendatan: Ikusi-Makusin eta Leokadistin.

Eta ondoren, Biterira bueltan izango da, Mikel Urdan-

garin bakarlarria. Kontzertua eskainiko du, gaueko 22:30etan hasita, kultur etxean. *Margolaria* lana aurkeztuko du, zinera ere eraman dutena. Biterin bertan erosi daitezke sarreak, 7,5 euroan.

Euskal jantziak eta sagardoa, asteburuko protagonistak

Astebururako, egitarau zabala prestatu dute aurten ere. Euskal Jantzien eguna izango da larunbatekoa, eta ez dira faltako antzinako jokuak, txakolin dastaketa, herri kirolak, erromeria, Musika Bandaren emanaldia... Bihar egingo diete omenaldia, baita ere, Portalondo estankokoei. Eta igandean, sagarra eta sagardoaren egunean, izango dira artisau azoka, sagardo dastaketa, trikitixa eta dantza suelto txapelketak... ■



Biterira bueltan izango da gaur, Mikel Urdangarin.

■ PRESO ETA IHESLARIAK

Logroñora mugituko dute Marta Igarritz

Marta Igarritz preso hernaniarra Logroñoko espetxera mugitzeko agindua eman du Espetxeen Idazkaritza Nagusiak. Castelló I espetxean dago orain, eta bere zigorraren hiru laurdenak bete ditu. Uztailean, lehenengo gradutik bigarreneira pasa zuten. ■

Enkartelada, gaur

Gaur arratsaldean jarri dute zita, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek, herrian zehar enkartelada egiteko. Plazatik abiatuko dira, 20:00etan. ■

■ ESKUBALOIA

Sasoi berrirako, izenematea zabalik

Denboraldia hastera doa Hernani Eskubaloi Taldea ere, eta 2007-2010 urteen artean jaiotakoek, aukera dute oraindik, apuntatzeko: www.hernanieskubaloia.eus webgunean sartu, eta formularioa bete. Ondoren, taldea jarriko da beraiekin harremanetan. Norbaitek beste kategoriaren batean hasi nahi badu, badauka horretarako aukera. ■

■ UDAL LIBURUTEGIA

Izena emateko aukera, oraindik

Urriaren 2tik 5era egingo dute ahozko narrazio tailerra, Udal Liburutegian; eta izenematea zabalik dago, oraindik. ■

■ ERRUGBIA OHOREZKO MAILA

Igandetik lehiatuko den taldea, zaleen aurrera

Gaur aurkeztuko du Hernaniko errugbi elkarteak, denboraldi berrirako Ohorezko Mailako taldea; Tilosetan izango da, arratsaldeko 19:30etan. Etzi dute ligako estreinakoa, Bartzelonaren zelaian.

BUKATU dira prestaketak. Etzi hasiko du liga, igandearrekin, Hernaniko Ohorezko Mailako taldeak. Errugbiko maila gorenean egingo du 2018-2019 denboraldia ere, eta Bartzelonaren zelaian estreinatuko da; 12:30etan, La Foixardan.

Baina azkeneko urteetan ohitura bihurtu den bezala,

txapelketari ekin aurretik, zaleen aurrera ekarriko dute taldea. Tilosetan egingo dute taldearen eta ekipazio berriaren aurkezpena, gaur, arratsaldeko 19:30etan hasita. «Polita da ikustea, gaztetxoei ilusioa egiten diela. Garai batean ez ziren ikusten haurrak kaletik errugbiko baloia hartuta, orain be-

zala. Horrek poza ematen du», dio Beñat Iradi kapitainak.

Gaztetxoen ilusioarekin eta herritarren animoekin, indarrak hartuta joango dira trikoloreak Bartzelonara, liga ondo hasteko asmoz. Izan ere, oso garrantzitsua da, ligari ondo ekitea; Hernaniren kasuan, mailari eusteko borroka horre-

tan pausoak hasieratik emateko: «konpletoago dago taldea, postu bakoitzeko jokalaririk gehiagorekin; eta horrek indartsuago egiten gaitu», nabarmendu du Iradik, Kronikari eskainitako elkarrizketan; bihar argitaratuko da Urumeako Kronikan, osorik. Jokalarien zerrenda ere, biharko Kronikan ikusgai. ■



☎ **TAXIAK:** 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 943 248900 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 ☎ / **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** / **Gauetz:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941**

EGURALDIA **GAUR** Eguraldi lasaia izango dugu gaur. Goizean goiz euri pixka bat egin dezake, baina garbitu egingo du gero, eta arratsaldean ostarteak nagusituko dira. Ipar-ekialdeko haizea, xuabe. **Min.15° / Max.23°** **BIHAR** Berdintsu egongo da bihar. Lainotuta hasiko dugu eguna, baina argitzera joko du, eta eguzkitsu geratuko da arratsaldean. Haizea, ipar-ekialdetik bihar ere. **Min.16° / Max.24°** (euskaime)

UDAL EUSKALTEGIA

«Joan den ikasturtean titulua lortu zuten ikasle guztiei, zorionak!»

Joan den ikasturtean ikasleek lortutako emaitzekin «oso pozik» azaldu da Hernaniko Udal Euskaltegia, eta ikasturte berrirako eskaintza aurkeztu du.

IKASTURTE berriari hasiera eman dio, Hernaniko Udal Euskaltegiak ere. Eta lehenik, zoriondu nahi izan ditu, «joan den ikasturtean A1, A2 eta B1 mailako titulua akreditatu eta B2 eta C1eko titulua lortu zuten gure ikasle guztiak».

Ikasturte berriari dagokionez, jakinarazi dute aukera izango dela, joan den kurtsoan bezala, HABEren A1, A2 eta B1 tituluak euskaltegian bertan lortzeko: «prest daukagu esperientzia haundiko eta formazio oparoko irakasle-taldea, ikaslearen beharrei ahalik eta txukunen erantzun eta helburuak lortzen laguntzeko», nabarmendu dute.

Taldeak osatzen, eta matrikula epea zabalik

Hori horrela, gogorarazi dute orain dela matrikula egiteko garaia. Epea zabalik dago oraindik, eta taldeak osatzen

Ikasleek aukeran dute astean bi edo lau egunetan joan nahi duten euskaltegira, eta zein ordutegitan. Autoikaskuntza ere, aukeran.

ari dira. «Denontzako moduko aukerak daude: astean bi eguneko modulua, lau eguneko, eta autoikaskuntza ere bai, online eginez eta astean behin euskaltegira etorrita», azaldu dute. Ordutegia ere, aukeran dute ikasleek: goizean, arratsaldean edo iluntzean, «ikaslearentzat egokiena den orduan. Titulua lortzeko, edo euskera txukundu eta aberasteko, edo eutsi eta hobetzeko; ikaslearen neurri-neurrikoa», diote Udal Euskaltegitik.

Gainera, azaldu dute «diru-

laguntza haundiak» daukagutela: «%90ekoarekin, bi eguneko ikastaroa 23 euroan, eta lau eguneko 47 euroan. Zatoz eta galdetu euskaltegian!».

Horretarako, eta matrikula egiteko, Karobieta auzoko 63 zenbakira jo behar da, ambulatorio zaharrera alegia. Goizeko 09:30etatik 13:30etara, eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara daude bertan. Bestela, telefonoz deitu (943 33 18 96) edota euskaltegi@hernani.eus emailera idatzi daiteke.

Kafe tertulia, asteburuko barnetegiak, tailerrak...

Ikastaroen gain, bestelako ekintzak antolatuko ditu Udal Euskaltegiak, aurten ere, ikasitako praktikan jartzeko: asteburuko barnetegiak, tailerrak, hitzaldiak... Baita izena eman ez dutenek ere. Gainera, kafe tertulia jarriko dute martxan urrian, beste ikasturte batez. ||

HEKIMEN PRENTSA OHARRA

«Onartezinak dira, alardearen berri ematen ari ziren kazetariak jasan zituzten oztopo eta erasoak»

Hondarribiako alardean hainbat kazetariren kontra izandako erasoak salatu nahi izan ditu Hekimenek, Euskal Hedabideen Elkarteak.

HONDARRIBIAKO alardean, joan den larunbatean, sortu zen zalapartaren harira, adierazpena egin du Hekimenek ere, Euskal Hedabideen Elkarteak. Eta salatu nahi izan du, «alardearen berri ematen ari zirela, hainbat kazetari jasanako erasoak». Eta, era berean, bere «elkartasun eta babes osoa» adierazi nahi izan die, beraien lana egiten ari zirela, erasotu zituzten kazetari horiei.

Hekimenek azpimarratu du, «onartezinak» direla, alardean «hainbat hedabideetako langileek pairatu behar izan zituzten oztopo eta erasoak: bultzadak, irainak, lanerako tresnak kentzeko saiakerak... Eraso horiekin, kazetari horiei ez ezik, herritar orok informa-

Erakunde publikoei eskatu die, neurriak hartu ditzatela.

ziorako eta adierazpen askatasunerako dituen eskubideei ere eraso egiten zaie».

«Informazioa euskeraz jasotzeko eskubidea ere erasotu zuten, larunbatean» Gainera, nabarmendu dutenez, «erasoa jaso zuten hainbat kazetari, euskerazko hedabideetan jarduten dutenak izanda, informazioa euskeraz jasotzeko eskubidea ere erasotu zuten, larunbatean», salatu du Hekimenek, «euskeraz dihar-

duren hedabideen elkartea garen aldetik».

«Oso larria da, ertzainek neurriak ez hartu izana, kazetariak babesteko»

Era berean, Hekimenek kritikatu du, «oso larria» iruditzen zaiola, «erasoak une horretan ordena publikoaren ardura bere gain zuten ertzainek aurrean gertatu ziren arren, haiek inolako neurriak ez hartu izana, kazetariak babesteko edota erasotzaileak geldiarazteko». Horregatik, erakunde publikoei eskatu die, hartu beharreko neurriak hartu ditzatela, «berriro horrelakorik gertatu ez dadin, eta kazetariak beren lana berme guztiekin egiteko aukera izan dezaten». ||

LITERATURA



Erika Elizari hernaniarra. Argazkia: Elkar argitaletxea.

Erika Elizarik jaso du Igartza Saria

‘Zendabalitz’ eleberri proiektua aurkeztu zuen hernaniarrak, idazle gazteentzako sariketara, eta berak irabazi du, 12 hautagaien artean.

ERIKA Elizari hernaniarrak irabazi du, aurtengo Igartza Saria, 21garren edizioa hain justu. *Zendabalitz* eleberri proiektua aurkeztu zuen Elizarik, idazle gazteentzako sariketara, Beasaingo Udalak, CAF enpresak eta Elkar argitaletxeak antolatzen dutena.

Aurkeztu ziren 12 proiektuen artean, hernaniarrarena aukeratu zuten hiru epaimahaiek; Miren Amurizak, Garazi Kamiok eta Igor Estankonak. Eta beraz, Elizarik jasoko du beka, eleberria idatzi eta

argitaratu ahal izateko.

Aireratzeko gai ez den hegazkin baten barruan kokatuko da *Zendabalitz*: «hegaldi gorabeheratsu baten kronika da. 100 lagun daude hegazkin horretan, atera ezinik. Aireratzeko pistatik metro gutxitara gelditu da hegazkina, arazo tekniko bat antzeman duelako. Ezusteko horrek, kontzientzia turbulentiak sortuko ditu zazpi bidaiarirengan, beraien iraganari edota etorkizunari lotutako kezka piztuz», aurreratu du Elizarik berak. ||

GOIZUETA

Elkartasuna elkarrearen estatutuak aldatzeko, bilera bihar goizean

Disoluzioa errazteko, estatutuak aldatzeko dituzte aurrea. Zita 11:00etan, eskolako jangelan.

AURREKO ostiralean egin zuten aurreneko bilera, Elkartasuna elkartea disolbatzeko. Eta prozesu hori errazteko, adostu zuten estatutuak aldatu behar direla aurrea. Horretarako, bihar jarri dute zita,

goizeko 11:00etan, eskolako jangelan. Behin estatutuak aldatuta, hurrengo batzar batean gauzatuko dute disoluzioa, eta irailaren 28rako jarri dute zita, arratsaldeko 18:30etan eskolako jangelan. ||

IRAGARKI MERKEAK

Zinkoenean 16 m-ko garaje itxia salgai. Deitu: 607 349 163

Ilñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)